

LEGE ZARRA KENTZEN (1839-1876)

1.- AURREKO ZURRUMURRUAK

Jakina da euskaldunak, onein artean bizkaitarrak, antxiñatik geure buruaren jabe izan eta, bear ba'da zortzigarren gizaldian asita, geure batzarretan geure legeak egin doguzala. Baiña, Erdi-Aroan asita gaur arte, Españak ez dan begi onez ikusi buru-jabetza au eta bere legepera sartzen alegiñak egin dauz eta egi-ten dauz: Bizkaiko jauntza eskuratu eben 1379n. urtean, ezkontzaren bidez Gaztelako errege eta Bizkaiko Jaun izango ziranen artean ezkontza eginda, orrelan ondorengoa errege ta Bizkaik Jaun izan daiten Gernikako batzarretan onartua ba'da. Gero Jaunaren eskubideak bide dirala, Batzarretan Korrexidorea ipi-ñita, eta abar.

Baiña orretarako alegiñik aundienak XIX gizaldian asita egin ziran. Idaz-lan batzuk gai oneri buruz egitea bururatu jat Mercedes Vazquez de Prada'rena dan "Negociaciones sobre los fueros entre Vizcaya y el poder central (1839-1877)" deritxon liburuari jarraituz.

Lenengo idaz-lan onetan 1939n. urte ori baiño urte batzuk lenago jazoriko gauzak gogoratuko dodaz.

BORBOIEN ERREGE ETXEA

Austriatarren Errege-Etxea izan zan agintari Españan eta etxe onetako erregeak naikoa itzaltasunez begiratzen eutsoen gure legegintzari, naizta beti alegindu musturra sartzen.

1700n. urtean sartu ziran agintzera Borboitarrek, Frantze'tik etorriak eta berez agintaritzat ardatz baten menpean eukitearen lagunak. Baiña Kataluñan be arazo larriak izan ebezan eta ez ziran ausartu argi-argi gure aurka jokatzan. Ez gogo onez, baiña Lege Zarra onartu eben.

VII FERNANDO ETA NAPOLEON

Errege borboi onen aldian askotariko goraberak izan ziran eta Españako agintaritzat zelan, gure Lege Zarra alan, ibili gintzazan: Gaur kendu, biar barriro onartu, eta orrelan Lege Zarraren ziurtasuna zalantza-za sartzen joan ziran 1804n. urte inguruan. Erregea bera be txarto ibilli zan, batzutan agintaritzat osoa bere eskuan ebalat beste batzutan Laterri-Legearen azpian.

VII Fernando errege izendatu ondoren laster Napoleon etorri zan eta onek Lege Zarra kendu egin eban.

KADIZ'KO KORTEAK

Kadizko korteetan ba-ziran Bizkaiko ordezkariak baiña oso makal jokatu eben. Aldi txarra izan zan be. Antxe lenengoz Bizkaiari emon eutsoen "probintzi" izena eta antxe galdu "Jaunerri" izena. Korrexidorea- ren ordezkari zaillea ipiñi euskuen, baiña ez zan bein betiko gauzea izan. Geroago be barriro Lege Zarra aske itziko dabe beste agintari batzuk, esango dogun lez: Erregeak mesede egitearren emon egiten euskun lege zarraren eskubidea: Ori ez da Lege Zarra, beste era bateko "forua" baiño.

BEIÑENAK

Gogoratu daiguzan zeintzuk ziran espainatarrai miñik geien emoten eutsen berezitasunak, labur-labur:

Lenengo Gernikako batzarrak eta bertan legeak egi- tea eta kanpotik datorren edozein aginduri "foni-bai- mena" edo "pase foral" ezarteko eskubidea.

Bigarren soldaduskatik aske izatea, Bizkai'tik kan- pora joatekotan ordainduta dala.

Irugarren sal-eroskeratarako askatasuna, aduanak Ebro ibaiaren inguruan, Orduñan eta Balmasedan dira- la.

Laugarren ezelako zerga barririk ezin ezarri izatea.

Bostgarren, epailariak bertokoak izatea. Eta alka- teak Gernikarako aukeratzea.

GUZTIAK BARDIN

Españatarren jokabidea beti eta batez be urte orrei- tan, ezbardintasun orreik kentzekoa izango da. Orreik gure aldeko lege bereizi edo "pribilegioak" dirala diño eta guztiak bardiñak izan bear dogula legeen aurrean. Guk, oster, gure betiko eskubideak eta kendu-eziñak dirala erantzun izan dogu beti.

Eurak indarrez beti izan dira gu baiño geiago, baiña guk errazoa euki dogu geure alde eta orretan diardugu gaur be.

OLAZAR'tar MARTIN